

berria

Euskaldun kopuruak gora egin arren, erabilera ez da hein berean handitzen, eta, horretan eragiteko, berebiziko garrantzia hartu dute hizkuntza ohiturak aldatzen laguntzeko dinamikak.

HARIAN | 2-7

EUSKARA NEKERIK GABE IBIL DADIN



NASAN

VERDE PRATO.

«BETI GUSTATU IZAN ZAIT GAUZA ZAURGARRI ETA DELIKATU BATETIK GAUZA ERRADIKALAK SORTZEA»

LAUHAZKA. CIRA CRESPO

GEHIGARRIA

Etxebizitza eskubidea dela aldarrikatu dute Donostian, eta negozio bide izatea salatu

EUSKAL HERRIA | 8

Pentsio eta soldata duinak eskatu dituzte milaka manifestaririk

EKONOMIA | 16

EGUZKI ENERGIA PLAKAK

Diseinatu
Instalatu
Mantendu

TAPIA
energia



40
1984-2023
urte zuzendile gortu

943 889 594
www.tapiaenergia.com

Euskaraz aritzeko «kondizioen» bila

Euskaldun kopurua gora doa, baina erabilera ez da hein berean handitzen; traba dira inguru erdaldunak eta hiztun askoren gaitasun apala. Horiek horrela, hizkuntza ohiturak aldatzen laguntzeko dinamikek berebiziko garrantzia hartu dute.

Testua: **ARANTXA IRAOLA**

Euskaraldia, hainbat enpresatan eta erakundetan euskararen erabilera areagotzeko abiarazi dituzten esperientzia askotarikoak, eta otsailean bertan Donostian aurkeztutako Gipuzkoa Arigune egitasmoa: euskararen

erabilera modu egituratu batean erraztea eta sustatzea helburu duten dinamikak dira guztiak ere, urteotan landutakoak eta martxan jarritakoak. Izan ere, euskararen ezagutzan aurrera egin den arren, erabileraren gorakada ez da hein berekoa beti. Aldeak handiak dira herrialde edo eremu batetik bestera, eta errealitateak, askotarikoak. Euskal Herri osora begira, oro har, Inkesta Soziolinguistikoa-ren azken datuen arabera, euskaraz erdaraz baino gehiago egiten dutenak %10 dira gaur egun, euskaldunak %30 izan arren. Eremu euskaldunenetan ere —Gipuzkoan, kasurako—, alde nabarmena dago: %51 dira euskaldunak, baina euskaraz erdaraz baino gehiago egiten dutenak %29 dira. Hain justu, alde hori murrizteko asmoz abiarazi dituzte erabilera sustatzeko dinamikak, euskara erabiltzen laguntzeko «kondizioen» bila.

Eta, hain justu ere, Soziolinguistika Klusterrak Aldahitz ikerketa martxan du 2010etik, hizkuntza aldaketak nola gertatzen diren aztertzeko eta hori era antolatuta batean nola sustatu ikusteko. Ikerketaren arduraduna Pablo Suberbiola da. Uste du aurren-aurrea onartu behar dela aldaketa horiek markarrean gora egin behar izaten direla usu: «Planteatzen dugunean hizkuntza ohiturak aldatu nahi ditugula, horrek esan nahi du pertsonen arteko harreman batean osagai bat aldatzea; horrek deserosotasunak sortzen ditu». Hori argi esan behar dela uste du: «Ez goaz esatera: 'Lasai, hizkuntza ohiturak aldatzea erraza da'. Hori gezurra da». Besteak beste, egoera soziolinguistikoak berak dakarren «inertzia» apurtu behar delako, haize kontra beti. «Hemen egoera sozial ahulean dagoena euskara da, eta gaztelaniaren edo frantsesaren aldekoak dira aldagai pila bat: berriak, zaharrak, estrukturalak, estatukoak... Maila askotakoak».

Pello Jauregi ikertzaileak aurrez egindako azterlan batzuetatik eta edan zuten aurrea ikerketa abian jartzeko, eta hura bidelagun izan dute egin dituzten aurrerabide askotan. Hark ondo-



«Ez goaz esatera: 'Lasai, hizkuntza ohiturak aldatzea erraza da'. Hori gezurra da»

«Ez badago aldaketa dezentekorik hizkuntza erabiltzeko jokamolde eta arau sozialetan, oso zaila izango da euskararen erabilerak gora egitea»

PABLO SUBERBIOLA
Aldahitz ikerketako zuzendaria

rio bat argi zuen ordurako. Suberbiolak uste du gogora ekarri beharrekoa dela: «Harreman sisteman ez bada zerbait aldatzen, berritasunen bat ez bada sartzen, berdin du pertsona batek euskara ikasi izana: askotan hizkuntza aldaketa ez da gertatuko». Horregatik, «artifizialki» antzaldatutako «sozializazio» prozesuak irudikatu eta abiarazi dituzte urteotan. Propio asmatutako egoera «arraroak» bilatu dituzte, behartuak neurri handi batean, «probokatuak». Parte hartzen dutenek, ordea, guztiak «onartu» dituzte. Urteotako guztietako lana gogoan, Suberbiolak uste du lezio hori nabarmendu behar dela, gainerako guztien gainetik: «Borondateak ematen dizu oinarria testuinguru berri bat sortzeko. Erabaki askea bada, horrek indarra dauka».

Lanketa horri esker ohartu dira «kultura soziolinguistiko berri baten» premiaz. «Ez badago aldaketa dezentekorik kultura soziolinguistikoan —hau da, hizkuntza erabiltzeko jendearen jokamolde eta arau sozialetan—, oso zaila izango da euskararen erabilerak gora egitea», abisu

eman du Suberbiolak. Adierazi du ezinbestekoa dela euskaraz «erdipurdi» moldatzen direnekin euskaraz hitz egiten hasteko bideak era egituratu batean sustatzea; norabide horretan urrats sendoak egiten ez badira, zaila izango da aurrera egitea. «Egingo dira egundoko ahaleginak, eta lortuko da gizartea elebidunduz joatea, baina elebindutze horietako gehienak ez dira erabilera errealean gauzatuko».

Bide horretan aurrera egite aldera, urteotan hainbat metodologia landu dituzte Aldahitz ikerketan, eta hainbat egitasmo zehaztutara ere eramanez lan egiteko modu horiek. Hona metodologia nagusiak, eta horietatik eratorritako jardunbideak:

Eusle: lan mundutik Euskaraldira

● Metodologia ezagunena da, eta Euskaraldia bera ere horretan oinarritzen da. Ezarri ahal izateko, parte hartzen duten kide guztiek ulertu behar dute euskara, eta eusle deituek konpromisoa hartzen dute guztiekin hizkuntza horretan aritzeko. Taldeak halaxe erabakita egiten da hori, adostuta, eta eraginkorra dela ikusia dute ikertzaileek. «Hainbat ohitura aldatzen laguntzen du». Bereziki, lan munduan euskararen erabilera sustatzeko erabili izan da orain arte. «Nahi dugu». Eusle metodologian murgiltzen direnek hori irmo sentitzen badute arrakastarako bidea seguragoa izaten dela ziurtatu du Suberbiolak. Ikusi izan dute: inoiz talde bat «erdi konpromiso» hasten bada, kale egiteko arriskua

handia izaten da. «Kontua da borondatez geure burua behartzea rol batzuekin eta arau batzuekin jardutera». Talde baten barruan, adostasunak sendoa izan behar du halako batean murgiltzeko: lautik hiruk prest egon behar dute, gutxienez.

Eta etengabeko ebaluazioa eskatzen du. «Jarraitu nahi dugu?». Astero berretsi behar izaten dute erantzuna parte hartzen ari direnek, eta metodologia propio prestatuta dago «desaktibatze»-ko, «deserosotasuna» gailentzen bada edo «gogoz kontra» jardun beharra agertzen bada. Bereziki lan munduan ezagun egin bada ere, Suberbiolak argi du beste eremu askotara ere eramanez daitetekeela.

Hain justu ere, adibidez, Euskaraldia bera Eusle metodologian oinarrituta dago. Sorburuan egon zen galdera gogora ekarri du Suberbiolak. «Lan mundurako eta talde txikietarako asmatu duzuen metodologia hori posible izango litzateke kalera eramatea?». Aurrez eginak ziren tokian-tokian hainbat esperimendu hiztunak «aktibatze»-ko, eta horietatik guztietatik edanda egin zen lehen Euskaraldia: 2018ko neguan. Euskal Herri osoan egin zen, babes instituzional sendoarekin eta zabalarekin: hori ere izan zen berritasuna. Eusle metodologian talde txikietan egiten denean hain sendoa den «paktua» lausoagoa da Euskaraldian; paparrean ahobizi eta belarriprest dioten eranskinak eramanez ere, ahuldu egiten da adostasun hori, urtu. «Ez dakizu zein daukazu aurrean», nabarmendu du Suberbiolak. Baina, muinean, Eusleren ezaugarriak

ditu dinamikak: «Borondatezko ariketa bat da, non talde batean baldintzak sortzen diren hizkuntza aldaketa bat gertatzeko». Alde horretatik, garrantzia eman behar zaiola uste du. «Nire ustez, Euskaraldia, tresna moduan, izugarria da». Mundu zabalean erakusteko moduko «asmakizun soziala» dela garbi du.

Ulerrizketak: praktitarako lehen atea

● Euslerekin ireki ezin zituzten ateari irekitzeko abiarazi zituen Klusterrak *Ulerrizketa* deitua. «Ikusi genuen hainbat egoeratan bazegoela jendea ahalegin handi bat egiten duena euskara ikaste»-ko, eta hor geratzen dena tarteko maila batean», azaldu du Suberbiolak. Erabilerarako bide gutxi dituzte pertsona horiek. Asko kostatzen zaie euskaraz aritzea, eta ia inork ere ez die hitz egiten hizkuntza horretan. «Praktikan, euskaraz erdipurdi dakien bati nork egiten dio euskaraz? Eta esaten genuen; orduan, ez du inoiz ikasiko». Hortik, Eusleren hurrengo urrats gisara heldu zen propio metodologia hau.

Behin metodologian murgiltzea erabakitzen badute, «ulermen aktiboa» izateko konpromisoa hartzen dute euskara maila apala dutenek, eta inguruko adieraztekoa zer-nola moldatzen diren euskaraz hitz egiten dietenean. Euskara maila jasoa dutenei, berriz, eskatzen zaie euskara «egokitan» jarduteko hasiberriekin: esaldi laburragoak erabiliz, behar bezala ahaskatuz... «Bi aldeek ikasi behar dute hori egiten», erantsi du Suberbiolak.



● «Fruituak» ikusteko fasean daude orain Euskaraldiaren antolatzaileak. Lan isilekoak izaten dira lehen hilabeteak, baina maiatzaren 15ean da aurten Euskaraldia, ate joka dago ja eguna, eta haren inguruan sortzen ari den mugimendua gero eta indartsuago sentitzen dute. Laugarren aldiz egingo da aurten Euskaraldia, eta Goiatz Urkijo koordinatzaileak gogora ekarri du aurten, bereziki, «ilusionagarria eta herrikoia» izatea nahi dutela. Lehen aldiz egingo da udaberrian, hori izango da aldaketa nagusia, baina ariketaren «esentzian» ez da aldaketarik, eta Euskaraldiak hizkuntza ohiturak aldatze-

ko proposatzen dituen rolek lehenengoan jarraituko dute: ahobizi edo belarriprest izateko aukera izango dute parte hartzen dutenek. Ariketak berak funtzionatzen duelako, eraginkorra delako: «Ikerketek hala diote». Lehenengo herri batzordeak hasten dira izena ematen Euskaraldian, eta hor sumatu dute aparteko dinamismoa. «Ikusten ari gara egundoko mugimendua herrietan berriro». Entitateei zabaltzen zaie gero atea: enpresa, elkarte eta antzekoei. Hor ere bada aldaketa bat aurten: aurreko aldian parte

hartu zuten entitate guztiek ezinbestean ariguneak sortu behar zituzten, baina aurten ez dute betebeharrak hori izango. Euskaraldiaren berri eman behar dute, parte hartzera animatu, ikusgarri egin. Eta erantzuten ari dira horiek ere: «Mugimendua nahiko handia izaten ari da». Norbanakoentzako izen ematea ireki zuten azkena, martxoaren 15ean. «Hor izen emateen olatu bat egon zen». Orain, olatuak harrotzen jarraitzea da helburua.

Lan munduan probatu dute hori ere, bereziki. Ez da beti erraza izaten prozedura. «Ez dago inoiz praktikarako, hanka sartzeko eta arraro sentitzeko egoera naturalik», esplikatu du Suberbiolak. Horregatik, berriz ere, Euslen ateratako lezioak gogoan hartuta, parte hartzen duten guztien «paktua» dute helburu metodologia honetan ere: «Arrarotasun hori onartzeko, eta bide bat egiten uzteko».

Metodologia honetan ere, parte hartzaileek astero berretsi behar izaten dute hizkuntza ohitura antzaldatuan jarraitu nahi duten. Egindako hainbat esperientzietan ikusi dituzte aldaketak. Benetakoak: «Lortzen denean mintzatzailearen eta ulertzailearen arteko paktua egotea, haien artean euskaraz egitea posible da, eta jarraitzen badute, ulertzaileak gero eta gehiago ulertzen du, eta hasten da gero egoera gehiagotan euskara erabiltzen».

Uler-saioak: ulermenerako lehen pausoa

● Aldahitzen garatu duten azken metodologia da: «Uler-saioak». Lanketa prozesuan dago oraindik, baina Gipuzkoa Arigune aurkeztu zutenean, adibidez, propio aipatu zuten hori ere. Helburua da bate-re euskararik ez dakitenak ulertzeko gai izatea, eta modu «esperimentalean» lantzen ari dira hainbat tokitan. Hala nahi duten erdaldunak ikasketa prozesuetara bideratzen dituzte, eta ulertzeko gaitasuna «denbora gutxian» lortzea da helburua. «Erreferentzia» moduan jarri dute ahozko ulermenean B1 maila lortzea. 120 orduan lor ote daitekeen: horixe da aztertzen ari direna.

Oro har, egun euskaltegietan erabiltzen diren metodologiaren bidez 800 bat ordu behar izaten dira euskara osorik ikasteko. Hori ez da baleko bidea euskara ikasteko prest dauden guztientzat. «Bada jende asko euskaraz ez dakiena, beharbada euskaraz jakin nahi lukeena, baina ez daukana 800 ordu euskara ikasteko, edo ez dagoena prest ordu horiek horretan emateko». Hots, lehen sarbide bat behar dute: oinarrikoagoa. Horientzat pentsatuta daude uler-saioak. Trebetasun bakar batean jartzen da indarra: «Ahozko ulermenean». Lehen emaitzen zain daude, ikasketa prozesu horietatik igaro direnekin zer harreman mota ehundu ahal izango diren ikusteko. Airean dago oraindik galdera: «Posible izango da horiei euskara errazean hitz egiten hastea?».

Ariguneak: «bermeak» euskaldunentzat

● Ariguneak Euskaraldiarekin-eta egin dira ezagun, baina beste eremu askotan ere erabili izan direla zehaztu du Suberbiolak. «Arigune bat da, azkenean, euskara erabil daitekeen eremu bat». Eta erabil daiteke «bermeekin». Izan ere, estres linguistikoa, elebidunek sarri askotan aurrean duten solaskideak euskara ulertzeko duen gaitasunaren inguruan izaten duten zalantza, desagertu egiten da esparru horietan: bermatuta dago han dauden guztien ulermena, eta bermatuta dago, baita ere, euskararen aldeko jarrrera.

Suberbiolak abisua eman du, hala ere: euskararen aldeko jarrrera ez da aski, hor egoteko borondate «esplizitua» ezinbestekoa baita ariguneetan ere. «Erabaki kontzientea eta librea baldin bada, askoz ere eraginkorragoa izango da erdi konpromiso jarritako bat baino». ●

Arantxa Iraola

Antzuola 2.000 biztanle inguruko udalerria da, Debagoienekoa, eta Gipuzkoa Arigunen, «edonork, edonorekin eta edonoz» euskaraz jarduteko abian den egitasmoan, murgilduta dauden udalerrietako bat da: aitzindari bat bidean. Eustaten arabera, euskaldunak %75 dira herrian; ia euskaldunak, %13; eta erdaldunak, %12. Ezagutza ehuneak ez dira ia aldatu igaro hogei urteotan. Kale erabileran, berriz, behera egin da epealdi horretan; bederatzi puntu. Eta gazteenei begira, horra: 2004ko kale neurketetan gazteen elkarriketa guztiak euskaraz izan ziren; 2021ean, berriz, %62 ziren euskaraz. Datu horiei begira, artegatuta, beherakadari erantzuteko zer egin zitekeen aztertzen eta lantzen harrapatu zituen Antzuolako euskaltzaleak Gipuzkoa Arigunen murgiltzeko gonbidapenak.

«Hor genbiltzan, asmatu ezinik», onartu du Olatz Lezeta Urzelai alkatea. Pozik hartu zuten horregatik proposamena: «Argia ikustea izan zen. Ikusten ari ginen beheraka ari zela erabilera, eta ez genuen ikusten nondik oratu horri. Eta gustura gaude, oso eskertuta». Eta ondo hasi dira lehen pausoak: «Jende pila bat gerturatu da. Gipuzkoa Ariguneren aurkezpena ere indartsua izan zen, jende pila bat agertu zen».

Talde eragile bat eratu dute herrian, propio, egitasmoaren inguruan. Alkatea horren garrantzia nabarmendu du: «Edo herria prest dago kontzientzia hartzeko eta herritik sortzeko zer edo zer edo... Goitik behera ez dago zer eginik». Egitasmoan murgildu diren herritarretako bat da Lierni Legorburu Ibarguren. Herritar gisara ari da egun, baina euskara teknikari izan zen hainbat urtez herrian bertan, eta begirada zoliz aztertu du eboluzio soziolinguistikoa. Argi du berak ere: «Herritarren aktibatzea derrigorrezkoa da». Eta bat dator: beharrezkoa da aldaketa bultzatzea. «Ikusten da ume-umetandik beste hizkuntza joera batzuk daudela. Urteak dira Antzuolan hori sumatzen hasi ginela». Gipuzkoa Arigunek erruz lagundu dezakeen irudipena du: «Helduleku bat da. Berme bat ematen du».

UEMA Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko kide da An-

Antzuola: arigune bihurtzeko langintzan

Gipuzkoa Arigune egitasmoa abian jartzen ari diren hiru tokietako bat da Antzuola; herri euskalduna da, baina atzeraldia erakusten duten zantzuak badira, eta horiei buelta emateko baliatu nahi dute prozesua.



«Jende pila bat gerturatu da. Gipuzkoa Ariguneren aurkezpena ere indartsua izan zen, jende pila bat agertu zen»

OLATZ LEZETA URZELAI
Antzuolako alkatea

«Nahi dugu denbora hartzea bidean topatzen ditugun irakaspenak aztertzeko»

XUBAN ZUBIRIA ELEXPE
Gipuzkoa Ariguneko teknikaria

«Ikusten da beste hizkuntza joera batzuk daudela. Urteak dira Antzuolan hori sumatzen hasi ginela»

LIERNI LEGORBURU IBARGUREN
Gipuzkoa Ariguneko parte hartzailea

«Proposamena etorri zenean, ikusi genuen Antzuola herri ona izan zitekeela Gipuzkoa Arigunerako»

IBON AGINAGA IMATZ
UEMAko teknikaria

ntzuola, eta bertatik ere ari dira prozesua hauspotzen. Mankomunitateko teknikaria da Ibon Aginaga Imatz, eta hark esan du UEMAn ere oso begi onez hartu dutela egitasmoa. «Oso baliagarria izan liteke». Eta uste du Antzuola abiaburu ona dela. «Proposamena etorri zenean, ikusi genuen Antzuola herri ona izan zitekeela Gipuzkoa Arigunerako». Teknikariet ondoan «herritar talde bat» behar dutela gogoratu du berak ere: «Gainerakoan gaitza da».

Xuban Zubiria Elexpe Taupako kidea da, Gipuzkoa Arigune

egitasmoaren teknikaria, eta, bereziki, Antzuolara begira ari da. Egitasmoaren lehen fasean daude, abiatzean: herri mailako azterketa komunitarioa izan da helburu behinena, euskara sustatzea delako helburua, «arigunetasuna» lantzea, baina ez edonola, «herri giroa ere» indartuz egin nahi dute hori. Lehen fase hau egin dute herri mailako «erronkak» identifikatzeko eta bidean lagun dezakeen «ekintza plan bat» abiarazteko; herriko «gune antolatuetatik» abiatuta egin nahi dute bide hori, egun ja herritarren topagune eta erreferentzia ezin-

besteko diren horietan aparteko ahalegina eginda.

Ulermena

Ulermenean areago egiteak garrantzia hartuko du apurka-apurka. «Berebiziko garrantzia ematen diogu ulermenaren sustapenari; alegia, euskaraz ez dakiten horiei euskara ikasteko beharra eta gogoia sorrarazteari». Eta horiekin hizkuntza ohitura berriak ehuntzen laguntzea izango da helburuetako bat; Aldahitz ikerketak ematen dituen metodologiak izango dira hor heldulekuetako bat. Estrategiak horiek,

ez dakitenak euskarara hurbiltzeko ez ezik, euskaldunon artean euskaraz aritzea sustatzeko ere ezinbestekoak dira. «Euskaldunok eusle rola hartzea ere falta da askotan», gogoratu du Aginagak. Izan ere, usu euskaldunei kosta egiten zaie euskararen aldeko hautuan irmo jarraitzea.

Bukatu nahi dute prozesua egingen dituzten aldaketak iraunkortuta, herrian ahalik eta trinkoen txertatuta: «Gu, teknikariok, une jakin batean beste herri batera joango gara, eta iraunkortze fase horretan saiatuko gara martxan jarri dugun hori iraunkortzen edo

← Gipuzkoa Arigune Antzuolan martxan jartzeko bileretako bat. GORKA RUBIO / FOKU



Lankide talde bat mahai baten inguruan. BERRIA

sistematizatzen», azaldu du Zubiriak. Herritarrentzat mugarri diren hainbat momentutan hizkuntzarekin lotutako irizpideak eta transmisioa oso ondo zuzartuta izan beharko dituzte ordurako: errolatzeko garaian, futbol taldean matrikulatzeko orduan, liburutegian izena ematerakoan... «Martxan jarri ditugun ekinaldiek horietan presentzia izan beharko dute». Etorri berriei begira-eta horrek garrantzi handia du.

Zer erretratu atera zaie egin duten azterketa komunitarioan? «Guneak eta uneak» aztertzen jardun dute, zer gertatzen den ikusteko. «Leku batzuetan oraindik erabilera indartsua da; beste batzuetan hortxe dago, indartsu baina hutsuneekin; eta beste batzuetan erabilera ez da espero genuena», azaldu du Zubiriak. Horren arabera «xede taldeak» sailkatu eta bakoitzari begirako «eskaintza» egitea da orain helburua. «Ahal den neurrian, herritarrek aktiba daitezela, batzuk kontzientzia hartuz joateko, eta beste batzuk euskara ulertzera iristeko...».

Horretarako egin duten ekintza plana martxan jartzen hasteko garaia da orain. «Orain gehiago da: nork, zer, noiz». Udalarena, herritarrena, UEMArena, euskalduntze-alfabetatzean ari diren eragile gutiena, egitasmoaren arduraren teknikoak daramaten erakunde eta elkarreana... Denen lana ezinbestekoa izango da hor aurrera egiteko. Apurka, egitasmoa Gipuzkoa osora zabaltzea da helburua, eta horrek dakarren «bertigoa» onartu du Zubiriak. Eta azaldu du horregatik ari direla, hain justu ere, astiro, urratsak ondo neurtuta. «Nahi dugu pausoak mantsoak eta trinkoak izatea, bidean topatzen ditugun irakaspen horiek aztertzeko denbora hartzea, gero beste herrietara joaten garenean proposamena ahalik eta indartsuena izateko, betiere ulertuta herri bakoitzak, oinarrizko proposamen baten barruan, bere bidea egin beharko duela». ●

Aldahitzen oinarritutako metodologietara jotzen dute usu lan mundua euskalduntzeko estrategiak bideratzen dituzten eragileek.

Hizkuntza ohiturak aldatzeko lantegi ere badira lantokiak

A. Iraola

Lan munduan, administrazio publikoan eta eremu sozioekonomikoan, esperientzia ugari egin dira hizkuntza ohiturak aldatzen ahalegintzeko. Aldahitz ikerketan oinarritutako metodologiek ematen dituzten irizpideak oinarri hartuta egin dira horietako asko. Euskararen erabilera sustatzea da helburu behinenetako bat, eta lan mundua euskalduntuz joatea. Propio Osakidetzan egin ziren Aldahitz ikerketaren inguruko hainbat «esperientzia pilotu» 2017an, emaitza onak izan zituzten, eta geroztik, hainbat ikasitako estrategiak ere erabili dituzte. Jarduteko espazio ona dela azaldu du Osakidetzako euskararen normalizaziorako teknikari Ainara Ibañezek. «Izan ere, ezagutza gero eta handiagoa da, baina erabiltzea kostatzen da: gizartean gertatzen den bezala».

2023an, Osakidetzako zerbitzu erakunde guztiei egin zieten dinamika horietan murgiltzeko eskaintza, eta gehienetan dinamika horiek martxan jartzea lortu dute ordutik: lehenengo urtean 28 talde profesional murgildu ziren egitasmoan, eta beste horrenbeste iaz. Ehunka langile izan ziren guztira. Eta aurrean ere martxan da. Eusle dinamikan ari dira, bereziki. «Eta aldaera bat ere sortu zen: biko eusle. Talde txikietan egiteko da».

Ikasbideak ateratzen ari dira: «Arrakastarako gakoetako bat zera da, borondatezkoa dela; zerbitzu erakunde bakoitzeko euskara teknikariek aukeratzen dituzte egokiak izan daitezkeen taldeak, baldintzak betetzen dituzten taldeak, baina aurkezpen bat egiten dugu eta galdetzen diegu ea benetan parte hartu nahi duten. Borondatezkoak dira, taldean adostutakoak, eta oraingoz oso harrera ona izan dute dinamika horiek». Sumatu egiten da askotan bulegoetan, korridoreetan, Eusle emandako irizpideen arabera ari diren taldeen jarduna. «Lankideak



«Borondatezkoak dira, taldean adostutakoak, eta oraingoz oso harrera ona izan dute dinamika horiek»

AINARA IBAÑEZ

Euskararen normalizaziorako teknikaria Osakidetzan

«Oso esperimendu zaugarria da, eta lan eremua askotan ez da batere egonkorra»

INAXIO USARRALDE

Emuneko aholkularia

entzuten ditugu, eta ohartzen gara askoz ere gehiago hitz egiten dutela euskaraz».

Neurtu egiten dute Eusle dinamikan murgilduta dagoen talde bakoitzaren hizkuntza erabilera: «Mintzagramak erabiltzen ditugu horretara-

ko». Eta emaitzak oso onak direla esan du Ibañezek: «Kasuen %99an euskararen erabilera gora egiten du, nabarmen». Dinamika martxan dagoenean egiten du gora, eta, handik bolada batera neurtuta ere, nabarmena da eragina. Hortik ondorioa: «Horrelako tresnak oso lagungarriak dira».

Horregatik, aurrerantzean ere lanketa horri eutsi nahi diote, ahalik eta gehien zabaltzeko. Zailtasunak ere badira, hala ere. Langileen mugikortasun handiaren ondoriozkoak dira arazo asko. Horregatik, propio, estrategiak «malgutzeko» ahalegina egin behar izaten dute sarri.

Alor pribatua ere bai

Eremu pribatua ere badira esperientziak. Inaxio Usarralde aholkularia da Emunen, eta hizkuntza ohiturak aldatzeko esperientziak koordinatu ditu hainbat enpresatan. Horra Eusle dinamika horra nola ezartzen duten. Baga: enpresetako euskara batzordeen laguntzaz, lanerako gune egokiak atzemateko ahalegina egiten da aurrean, baldintza egokien bila. «Denek izan behar dute gai ulertzeko, eta gehienek, euskara erabiltzeko». Biga: behin gune egokiak identifikatuta, deialdia egiten da, esperientzia aurkezteko, eta horren inguruko adostasuna lortzeko. «Komeni da gehienek bat egitea dinamikarekin. Gehiengoak bultzatutako testuinguru batean egin behar da». %80k-edo bat egitea izaten da xedea. Higa: eusleak izendatzen dira. «Horien funtzioa zera da, edozein elkarrizketatan beti euskaraz egitea gune horretarako kideekin dituzten harremanetan».

Behin martxan jarrita, etengabe gogorarazten zaie dinamika parte hartzaileei, ariketan sartuta daudela ahantz ez dezaten. Eta gertatzen ari dena neurtzen da. Lehen fase horretan, ikusten dira aldaketak: euskararen alde. Baina gogorarazpenak urritzen dituzten neurrian, «inertzia» gailentzen da zenbaitetan, eta erdarak tokia irabazten du. Lantaldeetan izaten diren aldaketak ere traba izaten dira askotan. «Oso esperimendu zaugarria da, eta lan eremua askotan ez da batere egonkorra», azaldu du Usarralde.

Ulerrizketak deitutako dinamika ere probatua da Usarralde, eta emaitza onak eman ditzakeela egiaztatua du. Ulertzaileak eta mintzatzzaileak murgiltzen dituzte dinamika horretan. Lehenek B1 mailatik gorako ezagutza izan behar dute; besteek, euskara jorria. Hor trebakuntza bat behar izaten da hizkuntza ohiturak aldatzeko: «Entrenamendu bat». ●

Arantxa Iraola

Bila ibiltzeko propio sortutako eremua da Badalab hizkuntza berrikuntza laborategia, oraindik ireki ez diren xendetan bidea egiten hasteko. Erreterian du egoitzan (Gipuzkoa), eta hantxe egin dira Gipuzkoa Arigune abiarazi ahal izateko bilera garrantzitsu ugari, bilaketa etengabe. Gipuzkoako Foru Aldundia eta Taupa euskaltzaleen mugimendua dira egitasmoaren sustatzaile nagusiak, eta Soziolinguistika Klusterra eta Badalab hizkuntza berrikuntza laborategia kide dituzte lanketan. Otsailaren 7an aurkeztu zuten, Donostian; Gipuzkoan «edonork, edonorekin eta edonoiz» euskaraz jarduteko bidea izan nahi duela esan zuten. Badalaben bertan elkartu dira proiektuari buruzko elkarriketarako Gipuzkoako Foru Aldundiko Hizkuntza Berritasunerako zuzendari Garbiñe Mendizabal Mendizabal (Tolosa, Gipuzkoa, 1961), Taupako koordinatzaile nagusi Jasone Mendizabal Altuna (Arrasate, Gipuzkoa, 1968) eta Gipuzkoa Ariguneraren koordinatzaile Mikel Ozaita Azpirotz (Ibarra, Gipuzkoa, 1982).

Gipuzkoa Ariguneraren aurkezpenen kontakatu zenuten: Pello Jauregi ikertzailearen galdera bat izan zen egitasmo honen abiaburua: «Zergatik ez Gipuzkoa arigune?». Zerk bultzatu zintuzten erronkan sartzeraz?

G. MENDIZABAL: Markel Olano diputatu nagusiak onartu zuen, eta gure bizkar gainean jarri zuen: «Hau nola egin dezakegu?». Orduan hasi ginen Soziolinguistika Klusterrarekin, Aldahitz metodologia zeukatelako, eta haiekin hitzarmen bat geneukalako. Hor, bilera luzeen ondoren, garai hartako Topaguneari eskatu genion laguntza, elkarriketa batzuk izan genituen, eta hor hasi zen elkarlana. Hasieran esango nuke ilusio handiz hartu genuela Gipuzkoa Arigune, baina benetan hasi ginen: «Eta hau nola egiten da?».

J. MENDIZABAL: Klusterrarekin eginiko aurrelanketan egon ziren kontrasteak gizarte eragileekin ere, eta ikasketa hori ez zen alferrik izan: agerian geratu zen lan multidiziplinar bat egin behar zela. Gero, arigunearen ideia Euskaralditik eratorria da, eta Euskaraldiaren koordinazioa orduko Topagunetik eramaten genuenez, bada koherentzia hori ere garrantzitsua izan zen. Erronka handi bat da, baina ausardiarekin egin genion denok, eta ilusioz.

M. OZAITA: Oso probokatzailerak da; Gipuzkoa Arigune asmo handiko egitasmoa da, eta lilura eragin de-

«Jendearen bizi beharretara egokituz egin behar da Gipuzkoa Arigune»

JASONE MENDIZABAL, MIKEL OZAITA eta GARBIÑE MENDIZABAL

Gipuzkoa Arigune egitasmoako eragileak

Gipuzkoan «edonork, edonorekin eta edonoiz» euskaraz jarduteko bidea abian da; Gipuzkoako Foru Aldundia eta Taupa dira Gipuzkoa Arigune egitasmoako eragile nagusiak, eta hitza hartu dute Jasone Mendizabalek, Mikel Ozaitak eta Garbiñe Mendizabalek, gakoak azaltzeko.

zake, baina lurreratu egin behar da. Sei hilabete pasatu genituen proiektua definitzen; txikitik hastea erabaki zen, hor ikaspenak jaso, eta asmo handiagoko proiektu bat garatzeko ibilbidea egitea, eta pausoak eman ahala ikusiko dugu asmoa egingarria den, partzialki egingarria den, edo dena delakoa.

G. MENDIZABAL: Ez da kasualitatea, Euskaraldiaren formulazio soziolinguistikoan eta kultura soziolinguistiko berri baten definizioan erabakigarria izen zen Pello Jauregiren ekarpena, eta Gipuzkoa Arigunen ere, besteak beste, horixe bultzatu nahi dugu: kultura soziolinguistiko berri bat, koherentea Euskaraldian proposatzen den horrekin.

Eta nola egiten da hori? Gipuzkoako hiru tokitan martxan da proiektua: Donostiako Añorga auzoan, Aian eta Antzuolan. Zer egin duzue horietan?

M. OZAITA: Ardatzetako bat ikuspegi komunitarioa da. Horrek esan nahi du herritarrekin, orpo orpo, eta jendearen bizi beharretara eta bizimoduetara egokituz egin behar dela Gipuzkoa Arigune, eta enpatia lan handi batekin. Euskaltzaletasuna eta euskararen erabilera bultzatu behar dugu,

baina besteen tokian ere jarri behar dugu, eta ikusi behar dugu haien premiak zein diren, eta horiek ere aintzat hartu. Hau da proposamen teorikoa, martxan dagoena, eta ja ibilbidetxo bat egin duena. Aipatu dut ikuspegi komunitarioa, eta bestetik daude antolakuntza kolektiboa eta adostasun zabala: hau herrietara eramanez kontraste lan indar-



«Lehentasunetako bat da elkarteak bultzatzea hizkuntza kudeaketaren arloan akordio berriak hartzeraz, horretan laguntzea»

«Ulermena. Gutxienez hori bermatuta, aukera asko zabal dakizkioke erabilerari. Ulermena gutxieneko bat da, asko laguntzen duena»

JASONE MENDIZABAL
Taupako koordinatzaile nagusia

tsu bat egin genuen; Gipuzkoako Batzar Nagusietan ordezkariak duten alderdi guztiekin egon ginen, adibidez, eta jaso genuen feedbacka ona izan zen.

J. MENDIZABAL: Kasu guztietan.

M. OZAITA: Hori azpimarratzekoa da. Gero, euskalgintzako eragileekin ere egon ginen, hainbat eta hainbat eragileekin. Euskalgintzatik kanpoko jende batekin ere bai, unibertsitateko jendearekin... Eta behin hiru herriak aukeratu genituen...

Zeren arabera egin zen aukeraketa?

M. OZAITA: Nahi genuen gune seguru modukoak izatea, esperimentatzeko ez izatea handiegia, ez izatea konplikatuak. Kontrastean jaso genuen feedbacka izan zen komeni zela herri biziaren ere: adibidez, eskola bat izatea gutxienez. Herrietan lehenik eta behin udal gobernuei aurkeztu genien Gipuzkoa Arigune. Abiatu edo ez, argi genuen herriak erabakiko zuela. Pausoz pauso joango ginen, eta, ezezkoa bazen, erretiratzeko prest geunden, beste herri batera joateko. Kasu honetan, ordea, denon babesa jaso dugu. **Zer egin duzue abiarazi duzuen tokietan egitasmoaren berri emateko?**

M. OZAITA: Lortu dugu hiru herrietan aurkezpen zabalak egitea, eta askotariko jendeak parte hartzea.

J. MENDIZABAL: Bai, eta jendeak parte hartu du, jendea hurbildu da.

M. OZAITA: Gero, lortu dugu herri bakoitzean hamar-hamabost lagun inplikatzeko proiektuan, gehi alderdietako ordezkariak, eta udal ordezkariak.

Ulermenaren unibertsalizazioaren bidean urratsak egitea da azken helburua; besteak beste, Aldahitzek asmatutako metodologiak erabilita horretarako. Nola egiten da hori?

G. MENDIZABAL: Ez da soilik ez dakienak ikastea edo ulertzea; paradigma aldatetzaz asko hitz egiten da, eta helburua da kultura soziolinguistiko berri bat izatea, herritarrek ere horretan janztea, eta nor bere lekutik pixka bat mugitzea hizkuntza kontuetan.

J. MENDIZABAL: Bakoitza urrats bat harago joatea.

M. OZAITA: Guk bermatzen badugu parekoak gutxienez euskaraz ulertuko duela, elkarriketa beharbada elebiduna ere izan liteke, eta behintzat zuk estres linguistiko gutxiago daukazu, eta bermea daukazu parekoak ulertuko dizula; eta, gainera, horretan





GORKA RUBIO / FOKU

lagunduko duen testuinguru bat baldin badago...

Eta zein urrats ari egiten zarete propio bide horretan aurrera egiteko?

M. OZAITA: Azterketa komunitarioarekin hasi gara herri bakoitzean, eta egin dugu ulermenaren eta erabileraren mapa: herritarrek dakite beste inork baino hobeto zer gertatzen den herri bakoitzean. Azterketa komuni-

tarioa egin, eta ekintza planak zehazten ari gara, bi urterako planetan. Lehen pausoa izan da gune antolatuetatik, jendea biltzen den tokietatik abiatzea. Hor, Taupan egin genuen Batera Jauzi prozesuan identifikatu genuen gauza bat zen hizkuntzak eragindako minak eta frustrazioak ere aintzat hartu behar direla, eta horregatik aipatu dut lehen enpatiaren kontu hori. Baina jendea biltzen den gune horietatik abiatu nahi dugu bidea, gero zabaltzeko.

J. MENDIZABAL: Jasota dagoen lehentasunetako bat da hizkuntza kudeaketaren arloan akordio berriak hartzea bultzatzea elkarrekin, horretan laguntzea. Hor, tokian tokira joanda, hainbat motatako erabakiak hartu beharko dira.

Helburuetako bat da Aldahitzek ematen dituen tresnez baliatzea; esaterako, euskararik ez dakitenak trebatzen hasi ahal izateko oinarritzko ulermenean. Baina euskalduntze-alfabetatze sare konbentzionala ere hor dago.

M. OZAITA: Bai, gure proiektua osagarria izatea proposatzen dugu. Ohiko euskalduntze eta alfabetatzea hor dago, eta bada-

kigu zer emaitza lortzen dituen, eta osagarria da.

J. MENDIZABAL: Ulermena. Gutxienez hori bermatuta, aukera asko zabal dakizkioke erabilerari. Ulermena gutxieneko bat da, asko laguntzen duena.

Aipatu duzue herrialdeko talde politiko guztiek begi onez hartu dutela egitasmoa, eta abian den espazioetan ere harrera ona izan duela. Baina hizkuntzaren atzeraldiari buruzko albisteak hor dira. Oldarraldiari buruzko berriak ere eguneroko kontua dira. Olatu atzerakoi horrek izan dezakeen eraginari buruzko kezkarik baduzue?

M. OZAITA: Guk gure esku dagoena egin behar dugu, eta hortik abiatu behar dugu. Egitasmo hau ausarta da, berritzailea da, eta esperimental. Ikusiko dugu. Merezi du saiatzea, eta Gipuzkoak horretarako baldintza egokienak dauka. Gainera, presarik gabe ari gara. Komunikazio aldetik ere, 2023ko uztailean hasi ginen, eta has gintezkeen 2023ko uztailean bertan etxafuegoak botatzen...

Baina su motelaren aldeko hautua egin duzue...

M. OZAITA: Su motelean gabilta, egin ahala komunikatuz. Aurkezpena ere, antzera joan da: ja-

behin hiru tokitan bidea egin ahala, momentu egokia iruditu zaigu. Zure galderari erantzunez, ez da galdera erraza. Komunitatean ere sinistu behar dugu. Guk aipatzen dugu globalizazioaren kontu hori badagoela, orain faxismoa ere gero eta gertuago daukagu, eta horrek zipriztintzen ditu gazteak, sare sozialak. Arduraz jokatu



«Helburua da kultura soziolinguistiko berri bat izatea, eta norbera dagoen lekutik pixka bat mugitzea hizkuntza kontuetan»

«Ilusio puntu bat ere behar du jendeak, eta uste dut gure ardura dela ilusio hori piztea, motibazio hori»

GARBIÑE MENDIZABAL
Gipuzkoako Foru Aldundiko
Hizkuntza Politikako zuzendaria

behar da, eta gure hizkuntza komunitateak tresna indartsu zenbait ez ditu izango, baina ikuspegi komunitarioa, indar komunitarioa eta lankidetzaz, baditu. Euskarak aurrera egin badu, ikastolak sortu zirenean-eta, hortik egin du, eta horri eutsi behar diogu. Euskararen kontrakoak Gipuzkoan orain-txe %3 dira. Jendea euskaltzalea da, eta, oro har, euskararen alde dago: artikulatu dezagun hori, eta eman ditzagun pausoak elkarrekin. Gainera, ikusi dugu babes politikoa badagoela. Ilusioa ere sortzen du gaiak.

G. MENDIZABAL: Mezu katastrofista horiek... Niri oldarraldia hitza ez zait gustatzen batere. Ilusio puntu bat ere behar du jendeak, eta uste dut gure ardura dela ilusio hori piztea, motibazio hori, eta zerbait egin dezakegula adieraztea. Epailerek egin dute berena, eta guk egin behar dugu gurea. Hor konbentzitututa gaude, eta hor aurrera egin behar dugu, eta beste kontuak, Mikelek esan duen bezala, beste bide batzuetatik egin beharko dira, eta hor ere ez gaude geldirik.

J. MENDIZABAL: Komunitatean igual orain arte ez da nahikoa inbertitu, eta nik poza daukat orain hau egiten ari garelako Gipuzkoan. Gainera, oraindik oso txikia da Gipuzkoa Arigune, bere denbora behar du ilusio hori hedatzen ikusteko. Epe luzerako lana da hau.

G. MENDIZABAL: Bai, eta kultura soziolinguistiko horretan pedagogia handia egin behar da herritarrekin, eta orokorrean ere bai: alderdi politikoetan, epaileen artean, EHUn, beste unibertsitateetan, enpresetan... Honek lanbro handi bat izan behar du, eta horrek igual ahalbidetu ditzake beste gauza asko. Ilusioa hori da, behintzat.

Ulermenean jarri duzue helburu behinena. Euskalgintzaren Kontseiluak berak ezagutzaren unibertsalizatorako oinarriak jartzean du ipinia helburua. Bateragarriak dira bi helburuak?

J. MENDIZABAL: Zalantzarik gabe. Nik Kontseiluko zuzendaritza batzordean parte hartzen dut, eta horretan gabilta. Bi ardatz ikusten ditugu, euskararen unibertsalizazioa eta erabilerarako gune erosoak bermatzea, eta oso koherentea da hemen esaten ari garenekin. Izan ere, horiek dira iparrak, baina beste gauza bat da ipar horiek denak batera ezin ditugula lortu, eta ezagutzaren unibertsalizazioa, gaur, Euskal Herriko parametroetan, arrisku handiko saltoa da, ikaragarria; orduan, irudika ditzagun koskak urratsez urrats, eta hau da, nolabait ere, formulazio bat. Horregatik lehen nabarmendu dut: berma dezagun hori gutxienez. ●



«Gipuzkoa Arigune asmo handiko egitasmoa da, eta lilura eragin dezake, baina lurreratu egin behar da»

«Hau herrietara eraman aurretik kontraste lan indartsu bat egin genuen, eta jaso genuen feedbacka ona izan zen»

MIKEL OZAITA
Gipuzkoa Ariguneraren
koordinatzailea